

EGUBERRI

Errepika : Zoin luzea den abendoa
Eguberriren goaitatzea¹!

Denetan apaindurak, jostailu berriak,
karrikak argitan: gertakari bat ospatuko da.

Errepika.


Kantak errepikatuz, zapatak ziratzuz,
Eguberri gaua, poza bihotzean, amets ogean².

Errepika.

Haur ttiki bat sortu da, horra berri ona.
Maitasun iturri, anaitasun, bake ekarlea.

¹ goaitatzea : igurikatzea, itxarotea

² ogean : ohean



HELBURUAK

AKTIBITATEAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN JAKINTASUNAK	ERABIL ETA LAN DAITEZKEEN ZEHAR JAKINTASUNAK
IRUDITU, SENDITU, SORTU. Kantua ikasi eta zuzen kantatu. Doinuaren zuzentasuna landu. Haurra giro berezi batean murgildu.	◆ Besteekin parte hartu gorputz adierazpen ihardueretan eta jokoetan, arau soil batzuen arabera, horien balioa onarturik. ◆ Musika talde-ihardueretan parte hartu. ◆ Botzarekin jostatu eta haren ahalak ikertu. ◆ Bere burua espazioan eta denboran kokatu joko kantatu eta dantzatuen bidez.	◆ Jokamoldea talde egoerari egokitu; parte hartu ; besteekin harremanetan jarri ; besteari behatu, bestea onartu eta errespetatu. ◆ Elgarrekilako bizitzaren arauak ulertu eta onartu, gogokoak ez direnak barne. ◆ Estetikaren sendikortasuna ukan eta bere gustuak adierazi, beste obretan ere.
MUNDUARI OHARTU. Denboraren luzetasunari ohartzea.	◆ Animalien eta landareen biziaren ezaubideei ohartu.	
MINTZATZEN IKASI, IDAZMENARI OHARTU. Eguberriari doakion lexikoa landu. Haurra giro berezi batean murgildu.	◆ Hitza hartu eta molde ulergarrian bere burua adierazi. ◆ Testu laburrak (olerkiak,...) erran eta gogoan atxiki. ◆ Gertakari baten kondakizuna ulertarazi pertsona helduari. ◆ Gauza, egintza eta sendimenduak izendatu eguneroko egoeretan. ◆ Hiztegi zehatza gogoan atxiki eta doakion kontestuan erabili. ◆ Ikasi hiztegia beste egoera batzuetan baliatu.	◆ Oroimena erabili egoera ezagunetan oinarrituz. ◆ Ixtorioen, kantuen, olerkien... eta beste segiden gogoan atxikitzen trebatu. ◆ Berdintasunak eta ezberdintasunak bereizi (iturak/formak, koloreak, izariak, soinuak,...). ◆ Agindu/manu bat ulertu eta bete.
ELGARREKIN BIZI.	◆ Elgarrekin bizitzeko arauak onartu.	

USTIAPENA (egin moldea)

Lehen ariketa : hots seriazioak (segidak) osatu ezkilekin.

Bigarren ariketa : erritmoak sortu ezkilekin.

Hirugarren ariketa : hiru uztairen barnean hiru ezkila ezberdin ematen dira. Haur bati begiak estaltzen zaizkio eta beste haur batek ezkilak jotzen ditu. Ondotik, lehen haurrak, begiak idekirik, ezkilak entzun dituen ordenan jo behar ditu.

Oharra : ezkilen ordeztu, haurren ahotsak entzunaraz daitezke edo tresna zenbait.

Jokoa :

- Erakasleak 25 orrialdeko egutegia (orriak 1etik 25 arte zenbatuak) prestatzen du.
- Errepika denboran, haurrak errondan jarri dira, eskuz-esku lotuak.
- Kopla denboran xutitzen dira.
- Kopla bakoitzaren ondotik, musika geldiarazten da eta haur bat joaiten da lehen 8 orrialdeen kentzera, aldi bat, beste haurrek denek batean kondatzen dutelarik.

Haurrak noiz gelditu behar duen jakin dezan, erakasleak aitzinetik 9garren, 17garren eta 25garren orrialdeak margotuak ditu.

Oharra. Egutegi hori bi moldetan apaila daiteke : paretan loturik edo lurrean, orrialdeak banatuz, bide bat eginez.

☺ **Marrazkia margo ezazu.**

Osatzeko, entzun Eguberriko kantuak. Adibidez : *Oles ta oles* KDa. Pantxoa ta Peio.

